

BALOREZKO PROPOSAMENA (SALUFRUIT)

Jendeak gero eta denbora gutxiago du, lanetik irten, seme-alaben bila joan, gimnasia joan... Horregatik proposatzen ditugu makina saltzaile berri hauek, janari osasungarria saltzen dutenak, fruta, frutu zukuak, zukuak... besteak beste erosten laguntzeko, janaria jan erosi nahi duzanean ez itzaroteko hainbeste ilarak egiten. Gainera, gaur egun, janaria erosteko denbora gutxi dugunez.. Statista atariak jakinarazten du 2020an vending-aren sektorearen fakturazioa 2.208 milioi eurokoa izan dela, eta horietatik 1.370 milioi janari eta edarien salmenta-makinekin lotuta zeuden 2019an IFMA Espainiaren urteko txostenaren arabera. <https://serunion-vending.com/noticia/el-futuro-sobre-el-sector-vending-cifras-y-tendencias>

Gaur egun joera handiagoa dago osasuntsu jateko, gero eta zabalagoa da fruta eta plater osasungarriak jatea, frutak, entsaladak, fruitu lehorrak... Tendentzia hau Realfooding-a esaten zaio. Beste izen batzuen artean hau janari sinplearen eta osasuntzuaren dibulgazioa eta kontsumoa defendatzen duen mugimendua da, prozesatutako janaria alde batera utziz. Herritarren osasuna hobetzea du helburu, elikaduratik abiatuta. Real-fooder-ek produktu ultra prozesatuak ez kontsumitzearen aldeko apustua egiten dute: freskagarriak eta edari azukredunak, opilak, ontziraturako zukuak, zereal finduak, barratxoak...

Hau esanda, gaur egungo gizartean dagoen arazo argi bat da lanetik edo ikastetik berandu irteten diren jendeak ez duela janari osasungarriko establezimendu irekirik; izan ere, 24 orduko ordu bakarrak janari azkarrekoak dira, hala nola Mc'Donalds edo Burger King. Gure produktuak normalak ez diren ordutegiak dituzten pertsona horiei laguntzen die lanera edo ikastera ateratzen direnean edozein motatako janari osasungarria erosteko aukera izan dezaten, fruta, entsaladak, fruitu lehorrak...

Beste arazo argi bat da gaur egun gizarteak lehen baino askoz azkarrago nahi duela dena, dena nahi dugula tekla, klik edo botoi baten eskura. Dena gure esku edukitzera akuilatu gara, eta ez dago atzera-martxarik. Dena daukaguna baino azkarrago eta errazago nahi dugu; informazioa bizkorrago, janaria azkarrago eukitzea... Gizartea aldatzen bada, mundua berarekin aldatzera behartuta dago, horregatik proposatzen dugu gure produktua; janari osasungarria orain arte baino askoz azkarrago eta errazago lortzea.

Gero eta kezka handiagoa dago bizi-estilo osasungarriagoengatik eta gure osasunean denbora luzean eragin ahal duena. Hori dela eta, produktu osasungarriek gero eta leku handiagoa hartzen diete vending-makinetan orain arte gehien ezagutzen genituen produktuei. Horrez gain, enpresek gero eta kezka handiagoa dute langileen osasunarekin. Frogatuta dago langile baten produktibitateak lotura zuzena duela elikadurarekin. Izan ere, elikadura osasungarriak motibazioa areagotzen du eta laneko absentismoa murrizten du. Horrela, vending osasungarriaren alde egiteak enpresako lan-giroa hobetzen du. Horregatik, eguneko edozein ordutan janari osasungarria ematea, eta, gainera, azkar eta eraginkortasunez.

<https://www.aguaeden.es/blog/comprobada-la-relacion-entre-una-optima-alimentacion-y-el-rendimiento-laboral#:~:text=Las%20dietas%20bajas%20en%20calor%C3%ADas.en%20algunas%20horas%20del%20d%C3%ADa.>

National Geographic Españaren argitalpen baten arabera, Suzanne Dicksonen, nutrizio-psiikiatriaren eremu berriko deskribapen eguneratuenaren egile nagusia, elikadura txar

baten eta gogo-aldartearen nahasmenduen okertzearen arteko lotura baten ebidentzia aurkitu du, antsietatea eta depresioa barne. Makina saltzaile hau guztion eskura jartzean, osasun fisiko hobea eta mentala hobetuko zuten.

https://www.nationalgeographic.com.es/ciencia/afecta-dieta-a-salud-mental-cual-es-evidencia_15129

Lehen azaldu ditugun arazoak konpontzeaz gain, gure produktua lehendik zegoen produktu bat hobetzen du. Kasu honetan vending makinak ditugu eta guk produktu horri gehitzen diegu janari osasungarria, biztanleriaren ohiturak hobetzeko. Azken urteetan ospe handiagoa lortu duena, janari osasungarriagoa kontsumitzeko joerak izan dira, gaur egun jendeak nahiago duelako janari osasuntzuegia jatea, janari zaborra baino.

Menuaren Munduko Txostenak diotenaren arabera: Erakartzen duen nutrizioa, pertsonak benetan askoz osasungarriagoak diren elikagaiak kontsumitzeko aukera izan nahi dute etxetik kanpo jaten dutenean. Unilever Food Solutions-ek egindako beste datu interesgarri baten arabera, inkestatutako pertsonen % 66k plater osasungarriago bat aukeratu ahal izango lukete otorduren batean, horretarako aukera izanez gero. Gure osasuntsuaren janari saltzaile makina argi eta garbi osasuntsu jateko modu bat da etxetik kanpo zaudenean da. Gainera makinek ez dute produktu oso garestiak, beraz, produktu osasungarriak prezio eskuragarrian kontsumitu ahal izango dituzu.

<https://www.cronicadelquindio.com/noticias/general-1/reporte-mundial-del-men-revel-que-opciones-de-c-atas-no-son-apetecibles>

Batez besteko kontsumitzaileak ez du zertan jakin behar salmenta automatikoaren industria zer egokitzapen egiten ari den, are gehiago, kasu gehienetan ez du erabat ezagutzen. Aukera horiek jendeari zabaltzea, ondo informatzea, vendinga aukera gisa kontuan har dezaten, bazkaltzeko zer hartu edo itxaronaldi bat egiteko zer snack eros ditzakeen planteatzen denean, hori da PVA bezalako kolektibo batek ezarri duen helburua. Elkarte horrek industriaren fabrikatzaile eta hornitzaile nagusiak biltzen ditu.

Vending-a, azkenean, eguneroko merkataritzaren erreplika da, beste abantaila eta eragozpen batzuekin, baina kontsumitzaileak jakin behar du ez duela freskagarri-lata edo aperitibo bat bakarrik aurkituko. Gehiago dago, askoz gehiago, "produktu ekologiko, barazki, fruta eta jogurten eskaintza zabala, plater prestatu osasungarriak"

Idei hau arurrera eramateko hainbat faktore kontuan hartu beharko ditugu, non kokatuko diren geure makina saltzaileak, zelako prezioa edukiko dute produktuak, nondik aterako ditugun janari osasuna...

Kontuan hartu beharreko faktoreetako bat da gaur egun ikastetxeetan, esaterako, debekatu egin direla osasungarriak ez diren produktuak (Coca-Cola, edari energetikoak...) saltzen dituzten makina saltzaileak. Hori aukera argia da janari osasungarria saltzeko makinaren proiektua gauzatzeko; izan ere, leku horietan makinak debekatuak negozio-falta bat utzi du, eta guk gure osasungarri produktuen makina saltzailekin estali dezakegu.

“Osasun Ministerioak iragarri zuen (...) zenbait elikagairen salmenta mugatuko zuela bigarren hezkuntzako eskoletan, eta elikagaiak eta edariak saltzeko makinak kenduko zituela lehen hezkuntzako zentroetatik (...). Neurri horiekin (...) ministerioak haurren obesitatearen arazoa konpondu nahi du, eta fenomeno hori gero eta handiagoa da gure herrialdean; izan ere, 2-17 urte bitarteko espainiarren % 8,5ek obesitatea du eta % 18,2k gehiegizko pisua, Osasun Sailaren datuen arabera.”

Aurreko artikulua arabera, haurrak eta nerabeak daude, eta argi eta garbi erakusten digu gure negozio-aukera. Artikuluan aipatzen denez, gaur egun umeen % 15 baino gehiago gehiegizko pisuan daude, eta horrekin erakusten dugu ikastetxeetan gure makinak oso lagungarriak izango liratekeela haurren osasuna sustatzeko; izan ere, zabor-janariarenak kenduta, janari osasungarriarekin jarriko genituzke gureak.

Horrez gain esan dezakegu hospitaletan bebai ez dagoela jateko oso janari osasuntsua horregaitik pentsatu dugu posiblea dela, hor makina batzuk jartzea. Uste dugulako errentagarria aterako zaigula zeren eta pazienteak laguntzen duten jendeak, bai familiarrak, bai erizainak ez dute oso ondo jaten ez daukatelako denbora janari osasuntsu bat prestatzeko beraz gure makineekin osasuntsu jateko aukera eskura dezakete.

Pentsatzen egon gara, zer produktu saldu ahal ditugu eta erabaki dugu, entsaladak, fruta zukuak (azukre, gabekoak) eta fruta zatitua (meloia, sandia, mahatzak, sagarra, madaria...) saldu dezakegula. Uste dugulako makina baten barnean ondo kontserbatuko direlako. Izan ere, produktu asko usteldu egiten dira denborarekin, edo garaiz ez badaude, gaizki jartzen dira azkar.

Kalitatearen aldetik gure produktuak % 100eko kalitatekoak izango direla ziurtatzen dizugu, makina saltzailean dauden produktuak astero birjarriko ditugulako, frutak azkar zahartzen direlako, baina birjartzeko orduan zahartu ez direnak, jantoki sozial bati ematea pentsatu dugu, janari hori guztia gal ez dadin eta zerbaitetarako balio izan dezan, eta horrela eguneroko hiru janariak ordaintzeko baliabide nahikorik ez duten pertsonen laguntzen ditugu.

Makinaren diseinuari begira, gure makina ez da gaur egun kalean dauden makina saltzaile gehienak bezalakoak izango, nabarmenago egingo dugu, arreta gehiago eman diezaiola. Horretarako, arreta deitzen duen kolore batekoa izango da, eta alboetan janari osasungarrien dekorazioak izango ditu. Esaldiren bat erantsiko zaio, jendeak osasuntsuago jan behar dela gehiago jakin dezan.

Lehen argitu dugun bezala, gure makinak leku estrategikoetan egongo dira, ahalik eta jende gehienak produktua eskuratu ahal izateko. Leku horiek ikastetxeen ondoan, ospitaleetan, gimnasioetan, lantokietan, aisialdirako lekuetan, merkataritza-guneetan... egon daitezke, besteak beste. Gure makinak jartzeko, leku horretan jartzeko aukera emango digun kontratu bat sinatuko dugu, pertsona guztiek gure produktu fresko eta osasungarriez gozatzeko aukera izan dezaten.

Janari osasungarriko makinan saltzen ditugun produktuak tokiko saltzaileei erosiko diegu, hala nola, fruta moztuta eta paketatua, entsaladak, fruitu lehorrak, zuku naturalak... Horrela, pertsonen osasuntsuago jan dezaten laguntzeaz gain, guk bezalako tokiko enpreseei lagungo diegu, haien enpresak ezagutarazteaz